

Osteguna, 2013ko abenduak 26 - 15:08

Plaza

bilatu...

Bilatu

[Hasiera](#)
[BerriaTB](#)
[Parte Hartu](#)
[Blogak](#)
[Bereziak](#)
[Kanalak](#)
[Zuzenekoak](#)


[Paperekoa](#)
[PDFn](#)
[Iragarki laburrak](#)
[Hitza](#)
[Harian](#) | [Iritzia](#) | [Kirola](#) | [Agenda](#) | [Plaza](#)
[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Plaza](#)

2013-12-26

ASTEBURUKO PROPOSAMENAK

Sagardoa, XIX. mendeko erara

Donostia. Duela 200 urteko sagardotegia ipini dute Bretxan; atarian, bolatokia eta toka izango ditu

ARAITZ MUGURUZA

Sagardo apurua

Txotx garaia ekin aurretik, sagardoa dastatzeko atea irekitzen zituzten sagardotegiek. Sagardo apurua deitzen zaio probatze horri, eta modu horretan ikusten zuten nolakoa zetorren muztioa. Ohitura hura berreskuratzeke, XIX. mendeko sagardotegi zaharra ireki du Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak Donostian, Bretxan. Igandera arte izango da zabalik.



Sagardotegi zaharra irekiko dute asteburuan Donostiako Parte Zaharrean, Bretxan; hiru egunetan, sagardoa dastatzeko aukera izango da. / BERRIA

Txotxarekin irekiko dute Sagardo Apurua, bihar, 18:00etan, eta bide batez, 2014ko sagardo garaia irekiko dute. Arantxa Eguzkitza Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko lehendakariak azaldu du Donostiak eta sagardotegiek bere garaian harreman estua zeukatela. «Garai horretan hiriko sagardotegietan jende asko ibiltzen zen, eta guk horrelako bat irudikatu nahi izan dugu». Horri jarraituz, Sagardogileen Elkarteak ohiturak berreskuratzeke lanean ari dela gaineratu du Eguzkitzak. «Antzeko ekintza da sagardo egunetan ateratzen dugun guri barrika».

Dekoraziorako erabili dituzten altzariak Aiete auzoko Munto baserriatik hartu dituzte, duela hilabete gutxi batzuk erori zen baserri eta sagardotegitik, hain zuzen. «Denbora zeraman abandonatuta, baina oraindik ere, nahiko ongi daude hango upel, aulki eta mahaiaik, eta tratatu ondoren hona ekarri ditugu», azaldu du Juan Carlos Berzosa Aieteko Lantxabe Auzo Elkarteko kideak. Asteburuaren ondoren, Aieteko Katxola baserrira bueltatuko dituztela gaineratu du, hura berreraiki zutenetik hangoak baitira altzariak.

Dozena erdi upelek, ertainek eta handiek, osatzen dute sagardotegi zaharra. Erdigunean mahai bat jarriko dute, eta oraindik indarrean dagoen ohiturari jarraituz, zutik dastatu beharko da sagardoa. Atarian, berriz, bola eta toka jokoak jarriko dituzte, XIX. mendean baserri inguruan horren estimatuak. «Garai batean usadioa zen baserriko lanak amaitu ondoren bola jokoan edo tokan aritzea», adierazi du Unai Agirre Sagardogileen elkarteko kideak. Joxe Mari Etxebeste Gipuzkoako Bola eta Toka Elkarteko kidea ziur dago Agirrek aipatutako itxura izango duela Bretxako sagardotegiak. «Lehenengo eran, plaza beteko dute toka eta bola tokiek, eta orduan bezainbesteko jendetzarekin beteko dira». Haur eta helduek izango dute parte hartzeko aukera.

Bisitariak epaile

Eta sagardotegietan ohikoa den eran, jatekorik ere ez da faltako egun hauetan. Bakailao pintxo lehiaketa egingo da hiru egunetan. Parte Zaharreko hamar tabernetara joan beharko da pintxoak probatzera, eta, ondoren, horiek puntuak emateko aukera izango du bisitariak. Horretarako, papertxo batzuk banatuko zaizkie sagardotegi zaharrean. Han agertzen da tabernen zerrenda eta bakoitzari jartzeko puntuazio tartea. Igandean, orritxo guztiekin zozketa egingo dute. Atariko karpan, bestalde, parrilla jana egingo dute.

Igandean, gainera, sagardo dastatze gidatua egingo da, 11:00etan. Ondoren, bola tiraldi ofiziala egingo da. Han parte hartzeko izena eman beharko da, 10:00etan. Giroa alaitzen trikitalari eta bertsolariak arituko dira.

Albisterik...

[IRAKURRIENAK](#)
[Bozkatuenak](#)
[Bidalienak](#)

- 1 Euskal Herriko bake prozesua hizpide BBCn
- 2 EAJK gaur erregistratu du EAeren autogobernuaz aritzeko taldea sortzeko eskaria
- 3 Gatazka diplomatikoa sortu du Shinzo Abek Yasukuniko tenplura eginiko bisitak
- 4 Pacheco eta Muñecas Espainian ikertzeko aukera aztertzen ari da Auzitegi Nazionaleko fiskala
- 5 Hamar ministro aldatu ditu Erdoganek, ustelkeria salaketek zabalduko krisia eteteko

SAGARDO APURUA

ABENDUAK 27

- **18:00.** Inaugurazioa egingo dute. Musikarekin batera, bertso jarriak entzuteko eta bola jokoan eta toka jokoan aritzeko aukera izango da.

ABENDUAK 28

- **11:30-14:00.** Musika, bola eta toka jendearentzat. Eguerdian itxi egingo dute sagardotegia.
- **18:00-21:00.** Musika, bola eta toka jendearentzat.
- **19:00.** Bertso saioa antolatu dute.

ABENDUAK 29

- **10:00.** Bola tiraldi ofizialean parte hartzeko izena emateko aukera.
- **11:00-12:30.** Sagardo dastatze gidatua antolatu dute.
- **12:30-14:00.** Bola tiraldi ofiziala jokatu da.

[Hasiera](#) | [Euskal Herria](#) | [Ekonomia](#) | [Mundua](#) | [Kirola](#) | [Kultura](#) | [BerriaTB](#) | [Parte Hartu](#) | [Blogak](#) | [Bereziak](#) | [Paperekoa](#) | [RSS](#) | [Twitter](#)

© **Berria.info - Euskal Editorea S.L.**
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140
Telefonoa: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172
berria@berria.info - www.berria.info
Lege Informazioa

**Laguntzaileak:**

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**